


ELKARRIZKETA

Jolastoki berria



IRAKASLEAREN
HAUSNARKETA

ZUZENDARIAREN
HITZAK

ELIZATXO IKASTOLA

JOLASTOKI KULTUR BERRI BATEN BILA
hezkidetzarako funtsezko espazioa

GUREN

Elizatxo ikastolako zuzendaria eta
proiektuaren ikastolako arduraduna.

LEIRE

Elizatxo ikastolako PT-a eta prozesuan
ikastolako bidelaguna.



ZEIN IZAN ZEN ZUEN ABIAPUNTUKO KEZKA ABENTURA HONETAN SARTZEKO?

GUREN:

Elizatxo Ikastolako patioa aspalditik izan da kezka gunea Ikastetxeko kide guztien aldetik (ikasleak, irakasleak, gurasoak, jantokiko hezitzaileak). Abiapuntua, 4. mailatik gora egindako galdeketatik jaso genituen erantzunak izan ziren. Honekin batera, lehen hezkuntzako ikasle gazteenak ere, tutoretza saioetan, kekek adierazi zituzten patioan gertatzen zitzaizkien egoerekin. Iritzi guztiak ikasleen elkarbizitza batzordera eraman zituzten.

Irakasleok patioan zer egin, nola jokatu, liskarrak, gatazkak...daudenean. Nola banatu espazioa, zerri eman lehentasuna, zein da gure egitekoa... hainbat galdera sortzen zitzaizkigun. Eta gurasoek, jolas garaiko jolasen inguruko kezkak, premiak adierazi izan dituzten ere. Jangela garaian ere, langileek beraien kezkak adierazi zituzten.

Horretaz gain, ikastetxean daukagun jolasleku handiena futbol zelaia da, eta horrek berak hartzen duen espazioa, futbolera jolasten ez duten guztiak patioa periferian egotera eramaten duelako. Egitura finkoa izateak, futbola jolas nagusia izatera bideratzen duelako.

Guzti hori jaso ondoren zuzendaritza eta batzorde pedagogikoan gaia landu eta gero, norbaiten laguntza behar genuela jabetu ginen, kanpoko norbaiten begirada behar genuen.

LEIRE:


Irailean eskolan lanean hasi nintzenean proiektua jada martxan zegoen, paperez behintzat. Baina ikasturte honi zegokion hitzetatik ekintzetarako jauzia egitea.

Irailean zuzendariak egin zidan jolastokiko proiektua bideratzeko proposamena. Proposamen horrek asko erakarri ninduen baina emozio zurrunbiloa ere eragin zidan.

Batetik, ilusioa eta gogoia jolastokiaren inguruko proiektu batean murgiltzeko: adin ezberdinetako ikasleekin arituz, prozesu parte hartzaile bat irekiz, desorekak bisibilizatuz, zehar kompetentziak lehen planora ekarriz...

Bestetik, urduritasuna eta beldurra. Jolastokiko gaia ez da berria eskolan. Espazio horren inguruko kezka egon badago eta aurretik egon omen dira eztabaida ugari baita erabakiak ere (esaterako baloirik gabeko egunak). Gaia bera konplexua bezain korapilatsua izan zitekeela sentitzen nuen. Horrez gain, nire perfila egokiena ote zen ere zalantzan jartzen nuen.

Egia esan, asko animatu ninduen jakiteak proiektua Farapi eta Hiritik-at-ekoen gidaritzapean burutuko genuela.



**"JOLASLEKU
HANDIENA FUTBOL
ZELAIA DA, ETA
HORREK BERAK
HARTZEN DUEN
ESPAZIOA, FUTBOLERA
JOLASTEN EZ DUTEN
GUZTIAK PATIOKO
PERIFERIAN EGOTERA
ERAMATEN DU"**

GUREN

ZERGATIK DA INPORTANTEA JOLASTOKIAREN KULTURA BERRIAREN INGURUKO PAUSUAK EMATEA?

GUREN:

Denon artean eta denok batera ematen baditugu pausuak funtzionamendua errazago izango delako.

LEIRE:


Prozesu honetan jabetu naiz jolastokia ez dela espazio fisiko bat soilik. Eredu horrek baditu bere ohiturak, arau esplizitu zein inplizituak, antolaketa bat, baloreak, hizkuntza... Beraz, jolastokiaren kulturaz hitz egiten dugunean hau guztia hartu behar dugu kontutan.

Hortaz, jolastokiko elementu fisikoak aldatzen eta moldatzen baditugu horrek zeharka aldaketa batzuk ekarriko lituzke. Baina benetan jolastokiko kultura berri bat martxan jartzeko, aldaketa fisikoaz gain beharrezkoa izango da berrantolaketarako eta eztabaidarako guneak sortzea.

Jolastokiaren kultura berriaren prozesu honetan ikasleak berak dira protagonistak. Eta protagonistak izateak ez du esan nahi gaiaren inguruko marrazki bat egitea edo irakasleekin batera bilera batean parte hartzea. Baizik eta ikasleei ahotsa ematea, beren kezkek, nahiak eta gogoetak adierazteko. Eta hortik abiatuta eztaidak sortu, adostasunak bilatu eta erabakiak hartzeko gaitasuna bermatzea. Botere aldaketa honek irakasleoi beldurra eta mesfidantza sortzen digula iruditzen zait. Pentsatzen baitugu ikasleek jolastokian igerileku bat jartzea erabaki dezaketeela (beren nahietan asko azaltzen delako). Baina prozesu parte hartzaile hauetan ikasleek oso ongi bereizten dituzte errealitatea eta ametsa. Amets horiek gainera ilusioaren eta motibazioaren gako direla esango nuke.

Bukatzeko esango nuke, jolastokia eremu hezigarri gisa ikusten dugula hezitzaile gehienok (harremanak, jolas librea, gatazkak, adin nahasketa...). Oraindik ordea, oso barneratuta daukagu "edukiak gela barruan ematen direla". Baina kurrikulumari erreparatzen badiogu jolastokia Oinarrizko Konpetentziak garatzeko leku paregabea da.

Oinarrizko zehar konpetentziak: komunikaziorako konpetentzia, pentsatzen ikasteko konpetentzia, elkarbizitzarako konpetentzia, ekimenerako konpetentzia eta norbera izaten ikasteko konpetentzia.



**"PROZESU HONETAN
JABETU NAIZ
JOLASTOKIA EZ DELA
ESPAZIO FISIKO BAT
SOILIK. EREMU
HORREK BADITU BERE
OHITURAK, ARAU
ESPLIZITU ZEIN
INPLIZITUAK,
ANTOLAKETA BAT,
BALOREAK,
HIZKUNTZA..."**

LEIRE

NOLAKO EXPERIENTZIA IZAN DA ZUENTZAKO ORAIN ARTE EGIN DUGUN PROZESUA? ZE AZPIMARRATUKO ZENUKETE?

GUREN:

Ikasleak protagonista nagusiak izatea, beraiek izatea beraien jolaslekuko eraldaketa fisiko zein kulturala sortu dezakeenak. Haurrek duten potentzialitatea azalerratztea. Era batera edo bestera, prozesu honek denon partaidetza jasotzen du, ikastetxean aritzen garen guztiona. Une batean, kanpoko agenteak ere gonbidatu ditugu prozesua ezagutzera, udala adibidez.

LEIRE:


Pertsonalki oso esperientzia aberatsa izan da niretzat, prozesua barrutik bizitzeko aukera izan baitut talde eragilearekin batera. Modu honetan hobeto ulertu ahal izan dut zertan datzan prozesu parte hartzaile bat. Esperientzia honetan oso lagungarri izan da Asierren laguntza eta proiektuan izan duen inplikazioa. Elkarrekin proiektuaren eta eskolaren arteko zubi lana burutu baititugu. Baita gure hezkuntza gogoetak aberastu ere.



Esperientzia honek bereziki hausnarketa eta gogoeta ugari ekarri dizkit. Besteak beste, irakasle-hezitzaileon rola, talde kohesioaren garrantzia, hezkuntza helburua prozesuan kokatzea azken emaitzan baino... Semerekin bizi izandako adibide bat datorkit gogora. Zuhaitz bat marraztu nahi zuen batean elkarrekin egin genuen eta oso marrazki polita izan zen. Beste batean ordea modu librean marrazten hasi zen. Marrazki honetako borobil, marrak eta koloreak emozioz eta esanahiez beterik zeuden. Zer marraztu zuen galdetu nionean imaginazioz betetako historiko bat kontatu zidan. Uste dut irakasleok garrantza handia ematen diogula azken emaitzari eta gutxi erreparatzen diogu prozesuari. Esango nuke heziketaren gakoa prozesu horiek esanguratsuak bihurtzean datzala. Eta gure papera? Ba prozesuak bideratzea eta ikasleak akonpainatzea.

Jolastokiko proiektuan polita izan da ikustea talde eragileko ikasleengan eman den aldaketa: ilusioa, motibazioa, ekarpenak, gogoia... Jakina denengan ez duela eragin bera izan. Baziren ikasleak ere pozik etortzen zirenak matematikako "saioa galtzen" zutelako. Beste batzuk ordea gelan oso isilik egoten zirenak hemen motibatuak eta asko parte hartzen. Txikienek ere sorpresa handiak, izan ere, inkontzienteki ere espektatiba handiagoak jarri izan ditut zaharrenean. Oso esanguratsua izan da ikasleen ahalduntzea ikustea.

"IKASLEAK PROTAGONISTA NAGUSIAK IZATEA"



ZER GUSTATU ZAIZUE PROZESUAREN METODOLOGIAZ?

GUREN:

Horrelako ibilbide bat egiteko haurren arteko kohesioa, elkar entzutea, iritziak jasotzea... ezinbesteko jarduerak direla prozesua, aurrera eramateko eta benetako eraldaketak emateko. Denbora dedikatu behar zaiola, ez direla bi egunetako kontuak oinarri sendo bat finkatzeko.

LEIRE:

Besteak beste asko gustatu zitzaidan jolastokiko hasierako diagnostikoa egiteko proposatutako jarduerak. Gelaz gelaz ikasleak bi taldetan banatu (neskak eta mutilak) eta jolastokiko plano erraldoi banaren inguruan ikasle bakoitzak bere burua bertan kokatzen du gometsen bidez ondorengo galderei erantzunez:

- Non egoten zara gehien...
- Norekin, zertan, zer sentitzen...
- Non gustatuko litzaizuke egotea...
- Non ez zara inoiz egoten...

Jarduera honek LHko ikasle guztien parte hartzea bermatzen du eta isilagoa edo lotsatiagoa denak ere badu bere tarte. Era berean oso modu bisualean ikusten dira ondorio nagusiagoak. Oso informazio interesgarria eta eztabaida aberatsak sortu ziren ikasleen artean.

Bestalde garrantzitsua iruditzen zitzaidun HHkoen nolabaiteko parte hartzea eta ekarpenak ere jasotzea. Lan honetan HHko irakasleek lan handia egin zuten jarduera ikasleen mailara egokitzeke.

Metodologian azpimarratuko nukeen beste alderdi bat talde kohesioari ematen zaion garrantzia da. Uste dut eskolak zentzu honetan badugula zer ikasi eta ez soilik ikasle taldeetan baita irakasleen artean ere.

"TALDE KOHESIOARI EMATEN ZAION GARRANTZIA. USTE DUT ESKOLAK ZENTZU HONETAN BADUGULA ZER IKASI ETA EZ SOILIK IKASLE TALDEETAN BAITA IRAKASLEEN ARTEAN ERE"

ADIN EZBERDINETAKO HAURRAK ELKARLANEAN ARITZEAK ZER SUPOSATU DU ZENTROARENTZAKO?


GUREN:

Adin ezberdinetako haurrak helburu bateratu bat izatea prosezua finkatzen duela esango nuke, proiektuaren helburuari begira sostengu errotuagoa sortuz.

LEIRE:

Iruditzen zait ikasle eta eskolarentzat oso aberatsa dela. Eskolan egiten dira hainbat jarduera adin besberdinak elkartuz eta oro har oso gustura aritzen dira denak (bikoteka irakurtzen, antzerki emanaldiak...). Kasu hauetan adin bateko ikasleek jardueraren bat prestatzen dute beste adin bateko ikasleentza. Proiektu honetan ordea, elkarrekin aritu dira lanean 6 urteko ikasleetatik hasita 12 urteko ikasleetara. Talde eragilea osatzerakoan adin aniztasunaz gain bestelako aniztasunak kontutan hartu genituen: interesak, pentsaerak, sexua, energiak, jatorriak, izaerak... Ikasle aniztasun honek interakzioa aberasten du pentsaera eta strategi anitzagoak sortuz. Baita kooperazioa indartzeko eta kompetitibitatea ahultzeko bideak zabaltzen ditu.

Antolamendu aldetik ordea ez da batere erraza izan nahiz eta zuzendaritzatik disponibilitatea izan. Batetik, espazio falta talde eragilea biltzeko (areto edo gela handi a 2 edo 3 orduz jarraian) eta bestetik, lehen hezkuntzako gela bakoitzeko bi ikasle (26 guztira) ordutegi berdinean biltzeko komerik.



**IKASLE ANIZTASUN
HONEK INTERAKZIOA
ABERASTEN DU
PENTSAERA ETA
ESTRATEGI
ANITZAGOAK SORTUZ.
BAITA KOOPERAZIOA
INDARTZEKO ETA
KONPETITIBITATEA
AHULTZEKO BIDEAK
ZABALTZEN DITU.**

LEIRE



ORAIN ARTE EGIN DUGUN LANETIK ZEIN IZAN DA ZUENTZAKO MOMENTURIK ESANGURATSUENA, EMOZIONANTEENA?

GUREN:

Zalantzarik gabe, irakasleei egindako aurkezpena. Irakasleak ikasleen galderari erantzuko une hori. Irakasleak ikasleei egin genien idatzitxoa, hor helduon emizioak ikutu zirela esango nuke.

ZER IKASI DUZUE ZUEK PROZESU HONETATIK? ETA ZENTRUAK?

GUREN :

Norbanakoak egin behar du prozesuaren ibilbidea, landutakoa irentsi eta norberarena egiteko, norberarena sentitzeko. Adostasunetara iristeak bere denbora eta dedikazioa eskatzen du, merezi badu ere. Ikastetxeak esaten dudanean; irakasleok, jangelako arduraduna eta langileak, ikasleei hitza emateak eta ikasleak, beraien ibilbidearen protagonista izateak dakarren onurak praktikan bizi izan ditugu.

LEIRE:

Azken gogoeta bat aipatu nahi dut: zehazki denboraren, lasaitasunaren, harreraren eta malgutasunaren ingurukoa. Izan ditugun saio hasiera guztietan tartetxo bat izan dugu "tailerran" sartu eta elkarri galdetzeko "zer moduz" edota elkarri entzuteko (modu informalean). Denbora tarte txiki bat da, baina oso baliagarria lasaitzeko eta lan giro aproposagoa lortzeko.

Zenbatetan sartzen gara gelara energia desegokiarekin? Azeleratutak, estresatutak, burua egin beharrez beteta edota haserre etxeko konturen bategatik? Uste dut eskola gizartearen isla ere badela. Batetik, daramagun erritmoa eta bestetik, gehiegizko jarduerak, ekintzak eta eskakizunak. Geroz eta "egin behar" gehiago goitik etorriak (hezkuntza, udala, zuzendaritza...). Zentzu honetan tutoreek lan karga handia izaten dutela iruditzen zait. Batzuk, oso interesgarriak ere izan litezkeenak, baina beste batzuk, lan administratibo eta burokratikoak hutsak, maiz inora ez doazenak. Zenbat denbora gelditzen da gelako antolaketarako, irakasleen arteko koordinaziorako eta eskola eremu komunen kudeaketarako? Denbora hau beharrezkoa da gelako eta eskolako aniztasunari behar bezala erantzuteko.

**"NORBERAK EGIN
BEHAR DU
PROZESUAREN
IBILBIDEA,
LANDUTAKOA
IRENTSI ETA
NORBERARENA
EGITEKO"**

GOMENDATUKO ZENUKETE HOLAKO PROZESURIK? ZER IZAN BEHARKO DUTE KONTUTAN HORRELAKO ABENTURA BATEAN SARTZEKO?

GUREN:

Egoeran inplikaturik daudenen arteko adostasunak bilatu nahi izanez gero, egokia iruditzen zait. Antolaketa eta ikastetxeko funtzionamenduan aldaketak egin beharko dira horrelako prosezua bat abian jartzeko, ezinbestekoa da egunerokotasuna hauste benetan erladaketa erreala ematerik nahi baduzu.



